# ANTZERKIA
# TEATRO
# DANTZA
# MUSIKA

**UDA**
VERANO
**2023**



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

donostia
**kultura**

**UZTAILA** JULIO

Uztaila **01** Julio
**URTEAK BETE, ABENTURAK BIZI**
PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS
**Victoria Eugenia**
Pág. 4 Orr.

Uztaila **06 -09** Julio
**LA ILUSIÓN CONYUGAL**
ALEJO SAURAS, ALEX BARAHONA, ÁNGELA CREMONTE
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 5 Orr.

Uztaila **06 - 09** Julio
**CRUZ DE NAVAJAS, EL ÚLTIMO MECANO** - VÉRTIGO 360
**Victoria Eugenia**
Pág. 6 Orr.

Uztaila **12 – 16** Julio
**ADICTOS**
LOLA HERRERA
LOLA BALDRICH
ANA LABORDETA
**Victoria Eugenia**
Pág. 7 Orr.

Uztaila **13 - 16** Julio
**KANPORA SARTZEN**
XABIN FERNANDEZ
INTZA ALKAIN
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 8 Orr.

Uztaila **19** Julio
**EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA**
**Victoria Eugenia**
Pág. 9 Orr.

Uztaila **21 - 25** Julio
**58. DONOSTIAKO JAZZALDIA**
**Trinitate plaza, Kursaal, Victoria Eugenia, San Telmo Museoa**
Pág. 10 Orr.

Uztaila **28 - 30** Julio
**¡POR FIN SOLO!**
CARLES SANS
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 11 Orr.

Uztaila **28 - 31** Julio
**SUZKO TXORIA + UDABERRIAREN SAGARATZEA**
**EL PÁJARO DE FUEGO + LA CONSAGRACIÓN DE LA PRIMAVERA**
MALANDAIN BALLET BIARRITZ
**Victoria Eugenia Antzokia**
Pág. 12 Orr.

**ABUZTUA** AGOSTO

Abuztua **02 - 06** Agosto
**CONTRACCIONES**
CANDELA PEÑA
PILAR CASTRO
**Victoria Eugenia**
Pág. 13 Orr.

Abuztua **03 - 06** Agosto
**CAMPEONES DE LA COMEDIA**
YLLANA
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 14 Orr.

Abuztua **09 - 13** Agosto
**DOBLE O NADA**
MIGUEL ÁNGEL SOLA
PAULA CANCIO
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 15 Orr

Abuztua **10 - 13** Agosto
**TXINAKO ZIRKU AKROBATIKO HANDIA**
**GRAN CIRCO ACROBÁTICO DE CHINA**
PLANETA VÉRTIGO
**Victoria Eugenia**
Pág. 16 Orr.

Abuztua **14 - 16** Agosto
**EL CANDIDATO**
IKER GALARTZA
ZUHAITZ GURRUTXAGA
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 17 Orr.

Abuztua **14 - 20** Agosto
**UNA SEMANA NADA MÁS**
MARINA SAN JOSÉ
MANU BAQUEIRO
JAVIER PEREIRA
**Victoria Eugenia**
Pág. 18 Orr.

Abuztua **17 - 20** Agosto
**BAGINAREN BAKARRIZKETAK**
AINHOA ETXEBARRIA
ITZIAR URRETABIZKAIA
INTZA ALKAIN
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 19 Orr.

Abuztua **23 - 27** Agosto
**UN OSCAR PARA ÓSCAR**
JON PLAZAOLA
GORKA AGINAGALDE
REBEKA SALA
MARA GUIL
**Victoria Eugenia**
Pág. 20 Orr.

Abuztua **24 - 27** Agosto
**UN TRANVÍA LLAMADO DESEO**
TENESSEE WILLIAMS
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 21 Orr.

Abuztua **30 - 31** Agosto
**LA COMEDIA DE LOS ERRORES**
ANDRÉS LIMA
**Victoria Eugenia**
Pág. 22 Orr.

Abuztua **31** Agosto
**MUNDOS PARA LELOS 2.0**
ÓSCAR TEROL
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 23 Orr.

**IRAILA** SEPTIEMBRE

Iraila **01 - 03** Septiembre
**LA COMEDIA DE LOS ERRORES**
ANDRÉS LIMA
**Victoria Eugenia**
Pág. 22 Orr.

Iraila **01 - 03** Septiembre
**MUNDOS PARA LELOS 2.0**
ÓSCAR TEROL
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 23 Orr.

Iraila **06 – 10** Septiembre
**EL VIENTO ES SALVAJE**
LAS NIÑAS DE CÁDIZ
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 24 Orr.

Iraila **07** Septiembre
**RAY ANDERSON SOLO**
MARCHING ON
**Victoria Eugenia Club**
Pág. 25 Orr.

Iraila **09 - 10** Septiembre
**LA CORTE DE FARAÓN**
SASIBILL
**Victoria Eugenia**
Pág. 26 Orr.

Iraila **13 - 17** Septiembre
**¡AY, CARMELA!**
MARÍA ADÁNEZ
JOAQUÍN NOTARIO
**Antzoki Zaharra T. Principal**
Pág. 27 Orr.

Iraila **13 - 17** Septiembre
**PETER, EL MUSICAL**
BY THEATRE PROPERTIES
**Victoria Eugenia**
Pág. 28 Orr.

Iraila **16** Septiembre
**EL COLUMPIO ASESINO**
AMARGA BAJA
**DKLUBA**
**Intxaurrondo K.E.**
Pág. 29 Orr.

Iraila **23** Septiembre
**ZEOZERTAN DABIL BAINA EZ DAKIT ZERTAN**
METROKOADROKA KOLEKTIBOA
**Gazteszena (Egia)**
Pág. 30 Orr.

Iraila **30** Septiembre
**EN ESA CASA PASAN COSAS**
EL CALLEJÓN DEL GATO
**Imanol Larzabal (Lugaritz)**
Pág. 31 Orr.

Iraila **30** Septiembre
**PLAÑIDERAS: HISTORIA DEL CONVERTIR UNA TRAGEDIA EN PRODUCTO**
CAMÍNATE PROIEKTUA
**Gazteszena (Egia)**
Pág. 32 Orr.

# URTEAK BETE, ABENTURAK BIZI
## PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Uztaila **01** Julio

**Victoria Eugenia**
**16:30 + 19:00**
**10 € / 7 € / 4 €**
euskara

35 urte beteko ditugu pailazo taldeak eta horren ospakizuna izango da saioa. Sudurgorrion bizitzan lagun egin ditugun hainbat etorriko dira bisitan ospakizunean parte hartzera. Kantua, dantza eta denon parte-hartzea ez da faltako, ezta tarte erraldoia ere… Urteak betetzea garrantzitsua bada, are gehiago abenturak bizitzea… eta hori izango da gure ospakizuna, beste abentura bat bizitzea!

El espectáculo celebra el 35 aniversario del grupo de payasos. A lo largo de la celebración vendrán de visita amigos/as que han acompañado al grupo en su vida. No faltará el canto, la danza y la participación, ni un tremendo rato… Si cumplir años es importante, más importante es vivir aventuras… y esa será la celebración, ¡otra aventura!



# LA ILUSIÓN CONYUGAL
## ALEJO SAURAS, ALEX BARAHONA, ÁNGELA CREMONTE

Uztaila **06 - 09** Julio

**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
**20:00**
**26 € / 20 €**
castellano

Arratsalde batez, Maria senarraren –Maxiren– zain dago etxean. Iritsi da halako batean, eta Mariak jolas bat proposatzen dio: jakitea zein puntutan diren bien arteko harremanak, hainbeste urtez monotonian bizi ondoren. Hona hemen jolasa: azaltzea zenbat maitale izan dituzten batak eta besteak ezkondu zirenez geroztik. Hortik aurrera, agerian geratuko dira elkarbizitzan zehar izan diren miseriak, gezurrak eta infidelitateak, eta maskara eranztea lortuko dute hala, eta elkarri behin eta betiko erakustea nolakoak diren benetan.

Una tarde, María espera a su marido, Maxi, en casa. Cuando llega, María le propone un juego. Saber en qué punto se encuentra su relación después de tantos años de monotonía. El juego consiste en saber la cantidad de amantes que han tenido durante su matrimonio. A partir de aquí saldrán a relucir las miserias, mentiras e infidelidades de las que han sido objeto durante su relación, hasta llegar a conseguir quitarse la máscara y mostrarse, de una vez por todas, como son en realidad.



© Javier Naval

# CRUZ DE NAVAJAS, EL ÚLTIMO MECANO
VÉRTIGO 360

Uztaila **06 - 09** Julio

**Victoria Eugenia**
06 - 07; **20:30**
08: **18:00 + 21:30**
09: **19:00**
**50 € / 40 € / 33 €**
castellano

*Cruz de Navajas, el último Mecano* musikalak, errespetu eta mirespen osoz, Mecano taldeari buruz egin den omenaldirik handiena izatea du helburu. Hain zuzen ere, Espainiako musika-taldeen artetik ospetsu eta nazioartekoenetako bat izan zen mintzagai duguna.

*Cruz de Navajas* ikuskizunak modu zirraragarri eta original batean egiten du taldearen kanta nagusietan zeharreko ibilbidea; horregatik da, hain zuzen ere, musika-ikuskizunen barruko genero berri baten sorrera. Izan ere, lehen aldiz, ez da argumentuzko istorio bat erabiltzen abestiak elkarri lotzeko; aldiz, horietako bakoitza unibertso eta istorio partikular bana bihurtzen da. Ikuskizun paregabe honek ikus-entzunezko formatu harrigarri eta apurtzaile bat erabiltzen du. Hala, Mecanoren abesti garrantzitsuenak entzun eta birsortzen dira, eszenaratze original eta harrigarri batez interpretatuta, teknologia aurreratuari eta talentu eta sentsibilitate bikainenari esker.

*Cruz de Navajas, el último Mecano* aspira a ser, con respeto y admiración, el reconocimiento más grande que se haya hecho sobre Mecano, uno de los grupos más emblemáticos e internacionales del panorama musical español.

*Cruz de Navajas* recorre los grandes temas de la banda de una manera impactante y original, y es por ello que supone la creación de un nuevo género dentro del espectáculo musical, porque, por primera vez, no se utiliza una historia argumental para unir cada tema, sino que cada uno de ellos se transforma en un universo e historia particular. Se trata de un espectáculo único con un sorprendente y rompedor formato audiovisual, donde se escuchan y recrean los grandes temas de Mecano interpretados con originales y asombrosas puestas en escena, gracias a una avanzada tecnología y al talento y la sensibilidad más exquisita.



# ADICTOS
## LOLA HERRERA, LOLA BALDRICH, ANA LABORDETA

Uztaila **12 – 16** Julio

**Victoria Eugenia**
**20:00**
**29 € / 24 € / 20 €**
castellano

Denok gara mendeko...

*Adictos* den-denoi dagokigun arazo bati aurre egiteko beharretik sortu da: noraino dago gizartea teknologiaren mende? Benetan aske al gara? Zer gizarte mota eraiki dugu? Zer panorama ageri zaigu etorkizun hurbilean? Benetan merezi al dugu “gizaki” izena?

Galderok gutxitan pausatu ohi dira agertokietan, baina gaur egungo ikus-entzuleek aurre egin behar izaten diete. *Adictos*en errealitatea desinformazioaren hedapen gero eta handiagoa da. Fikzio honetan, pertsonaiek denoi dagozkigun kezkak dituzte, eta auzitan jartzen dituzte orain arte baliozkotzat eta egiazkotzat jo izan ditugun paradigmak. Baliteke paradigmon azpian gezurra ezkutatzea, eta gezur horiek gure bizitza desitxuratzea. Estela pertsonaiaren eraldaketa metafora bat da, gizakiak jarrera aldatzeko duen gaitasunarena.

*Adictos* somos todas y todos...

*Adictos* surge de la necesidad de abordar una problemática que afecta a todas las personas: ¿hasta qué punto está la sociedad sometida por la tecnología? ¿somos realmente libres? ¿qué tipo de sociedad hemos construído? ¿qué panorama nos plantea el futuro más cercano? ¿realmente nos merecemos el calificativo de “seres humanos”?

Estas cuestiones, que raramente hoy se ven planteadas encima de un escenario, deben confrontarse con el público contemporáneo. La realidad de *Adictos* es la de la expansión progresiva de la desinformación. Una ficción cuyos personajes manifiestan inquietudes que nos atañen a todos, cuestionando paradigmas que, hasta ahora, hemos asumido como válidos y ciertos pero que puede que escondan mentiras que estén distorsionando nuestras vidas. La transformación del personaje de Estela viene a ser una metáfora de la disposición del ser humano para cambiar de actitud.



© Daniel Dicenta Herrera

# KANPORA SARTZEN
## XABIN FERNANDEZ, INTZA ALKAIN

Uztaila **13 - 16** Julio

**Antzoki Zaharra Teatro Principal**
**20:00**
**26 € / 20 €**
euskara

2013ko martxoaren 11n, Xabinek seropositiboa zela jakin zuen; egun hartan, dena aldatu zen. Hamar urteren ostean, Xabin eta birusaren arteko harremanaz hitz egiteko garaia iritsi da. Lanak birusarekin izandako elkarbizitza eta azken hamarkadan gertatutako pasadizoak errepasatuko ditu. Pilulak, estigma, lotsa, kontsultak, beldurra, errua, bakardadea, osasun mentala, terapia, pandemia... Nola eragin du birusaren etorrerak Xabinen eguneroko bizitzan?

Aitziber Garmendiak zuzendutako *Kanpora sartzen* lana sentimendu gordinenen eta umorearen arteko oreka bilatzen duen lehen pertsonan idatzitako istorioa da.

El 11 de marzo de 2013, Xabin supo que era seropositivo; aquel día, todo cambió. Diez años después, ha llegado el momento de hablar sobre la relación entre Xabin y el virus. La obra muestra cómo ha sido su convivencia con el virus, repasando anécdotas ocurridas en la última década. Pastillas, estigma, vergüenza, consultas, miedo, culpa, soledad, salud mental, terapia, pandemia... ¿Cómo ha influido la llegada del virus en la vida cotidiana de Xabin?

Dirigida por Aitziber Garmendia, *Kanpora sartzen* es una historia escrita en primera persona que busca el equilibrio entre los sentimientos más crudos y el humor.



# EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA

Uztaila **19** Julio

**Victoria Eugenia**
**19:30**
**14 € / 10 €**

**Rubén Gimeno,** zuzendaria director

Egitaraua Programa:
**Maurice Ravel**
***Ma Mère l'Oye: Suite***
**Anton Dvorak**
***8. sinfonia Sinfonía nº 8, Op.88***

Ravelen obra xarmagarrietako batekin abiatuko da egitaraua. Orkestrazioa distiratsuko *Ma Mère l'Oye* hasiera batean pianorako konposatutako haurrentzako pieza bilduma bat da. Musika hau sortzeko Ravelek erabilitako testuren fintasuna benetan txundigarria da.

Programa honetan, Dvoraken *Zortzigarren sinfonia* eskainiko da. Maisutasunez orkestratua, bohemiar musika herrikoian oinarrituta dago. Dvorakek bere udako etxean sortu zuen obra hau. Izan ere, etxe horretan pentsamenduen jarioa askeagoa zen.  Nahiz eta aldizkako eztanda dramatikoak agertzen diren, *Zortzigarren sinfonia*n euforia bukolikoaren tonua gailentzen da, bizirik egotearen poztasuna mirari naturalak ematen diren mundu batean.

El programa comenzará con una de las obras más encantadoras de Ravel. De radiante orquestación, *Ma Mère l'Oye* es una colección de piezas infantiles, inicialmente compuesta para piano a cuatro manos. El refinamiento de las texturas que Ravel utiliza para recrear esta música es una fuente interminable de asombro.

El programa incluye además la *Octava sinfonía* de Dvorak, orquestada con gran maestría e inspirada en la música popular bohemia. Dvorak compuso su *Octava sinfonía* en su casa de veraneo donde sus pensamientos fluían más libremente. A pesar de los ocasionales estallidos dramáticos, el tono predominante de la *Octava sinfonía* es el de la euforia bucólica, la pura alegría de estar vivo en un mundo de maravillas naturales.



# 58. DONOSTIAKO JAZZALDIA

Uztaila **21 - 25** Julio

**Trinitate plaza, Kursaal, Victoria Eugenia, San Telmo Museoa**

58 Jazzaldia uztailaren 21etik 25era izango da. 16 agertoki, 100 kontzertu inguru eta horietatik 59 doakoak. Musikaz gozatzeko izarrez beteriko bost egun: Norah Jones, Ben Harper, Joss Stone, Pat Metheny, Village People, Abdullah Ibrahim, Kenny Barron, Enrico Rava, Bill Frisell, Tiken Jah Fakoly, Julian Lage, Yosuke Yamashita, Fred Wesley & The New J.B.'s, Jerry Bergonzi, Nubya Garcia, Viva Suecia, David Helbock, Arde Bogotá, Blue Lab Beats, Rocío Márquez & BRONQUIO, Ezra Collective, Ill Considered, The Side Effects, Damir Imamovi , Niño Josele, ZETAK, Bengue, Sara Dowling, Eri Yamamoto, Hakuei Kim, Elena Setién, Five Stars, Michele Hendricks & Ronald Baker Project, Pere Bujosa, Converssesions, Lucía Rey, MOVE, Bandolero Quarteto, Gonzalo del Val, NGBM, Olana Liss, Alto For Two, Nakar, Kinkfolk, Amaika Rude...

Del 21 al 25 de julio se celebrará el 58 Jazzaldia. 16 escenarios en los que se podrán ver al rededor de 100 conciertos de los que 59 serán gratuitos. Cinco días repletos de estrellas para disfrutar de la música: Norah Jones, Ben Harper, Joss Stone, Pat Metheny, Village People, Abdullah Ibrahim, Kenny Barron, Enrico Rava, Bill Frisell, Tiken Jah Fakoly, Julian Lage, Yosuke Yamashita, Fred Wesley & The New J.B.'s, Jerry Bergonzi, Nubya Garcia, Viva Suecia, David Helbock, Arde Bogotá, Blue Lab Beats, Rocío Márquez & BRONQUIO, Ezra Collective, Ill Considered, The Side Effects, Damir Imamovi , Niño Josele, ZETAK, Bengue, Sara Dowling, Eri Yamamoto, Hakuei Kim, Elena Setién, Five Stars, Michele Hendricks & Ronald Baker Project, Pere Bujosa, Converssesions, Lucía Rey, MOVE, Bandolero Quarteto, Gonzalo del Val, NGBM, Olana Liss, Alto For Two, Nakar, Kinkfolk, Amaika Rude...



# ¡POR FIN SOLO!
## CARLES SANS

Uztaila **28 - 30** Julio

**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
**20:00**
**26 € / 20 €**
castellano

Tricicle atseden mugagabea hartzera doan honetan, Carles Sans-ek, 40 urteko isilaldiaren ondoren, denbora horretan guztian bizi izandako pasadizo profesional eta pertsonal xelebre eta dibertigarriez hitz egitea erabaki du *¡Por fin solo!* honetan. Aitortza harrigarriak, hala nola lankideei konpainia sortzeko konbentzitu aurretik, haien neska lagunak interesatu zitzaizkiola, edota nola pasatu ahal izan zuen bere azken kolonoskopia medikuak Triciclez hitz egiten zion artean.

Kontatzen digu, halaber, nola gurasoek lehen aldiz ikusi zuten bera Joan eta Pacorekin antzezten Bartzelonako kafe-antzoki batean, edo nola miazkatu zieten belarria Japonian jardun izan zutenean, bai eta zer-nolako erridikulu handia egin zuen jumbo batean, hegan egiteko beldurragatik...

Ikuskizun hau 60.000 ikus-entzulek baino gehiagok ikusi dute, eta lau algara baino gehiago bermatzen ditu minutuko.

Ahora que Tricicle se toma un descanso indefinido, Carles Sans, después de 40 años en silencio, aprovecha en *¡Por fin solo!* hablar de divertidas anécdotas profesionales y personales vividas durante todo este tiempo. Confesiones tan sorprendentes como que antes de convencer a sus socios de formar una compañía se interesó primero en sus novias, o como cuando consiguió superar su última colonoscopia mientras la doctora le hablaba de Tricicle.

Nos cuenta también de la primera vez que sus padres le vieron actuar con Joan y Paco en un café teatro de Barcelona, o de cuando les chuparon la oreja cuando estuvieron actuando en Japón y también del memorable ridículo que hizo en un jumbo cuando tenía pánico a volar...

Un espectáculo que han visto mas de 60.000 espectadoras y espectadores, y que asegura mas de 4 carcajadas por minuto.



© Elena Infante

# SUZKO TXORIA + UDABERRIAREN SAGARATZEA

# EL PÁJARO DE FUEGO + LA CONSAGRACIÓN DE LA PRIMAVERA

## MALANDAIN BALLET BIARRITZ

Uztaila **28 - 31** Julio

**Victoria Eugenia Antzokia**
**20:00**
**32 € / 23 € / 15 €**

XX. mendeko arrakastarik handienetako bi ezbairik gabe, Igor Stravinskiren *Suzko txoria* eta *Udaberriaren sagaratzea* lanek koreografia asko izan dituzte Fokinek eta Nijinskik, hurrenez hurren, Ballet Errusiarrentzat lehenengoz sortu zituztenetik. Beren bertsioak osatzeko, Thierry Malandainek eta Martin Harriaguek beren jatorrietara jo dute. Bere musika-sentiberatasuna aski frogatua duen Koreografia Zentro Nazional Malandain Ballet Biarritzeko zuzendariak bere espiritualtasun biblikoa itzuli dio jatorrizko ipuineko Txoriari: argi-eramaile zerua eta lurraren artean, gizakioi esperantza eta aringarria eskaintzea du helburu, Asisko Frantziskoren antzera. Ikuspegi irmodun artista elkartua dugun Martin Harriaguek, bestalde, Stravinskik berak Montjoie aldizkarian azaldu zuen Sagaratzearen argumentua hartu du oinarri, gizakiaren pultsio telurikoa taularatu nahian, obran zein partituran.

Auténticos éxitos del siglo XX, *El pájaro de fuego* y L*a Consagración de la primavera* de Igor Stravinsky han sido coreografiadas miles de veces desde sus creaciones originales respectivas de Fokine y Nijinsky para los Ballets Rusos. Para revisitarlos, Thierry Malandain y Martin Harriague han vuelto a sus orígenes. El director del Centro Coreográfico Nacional Malandain Ballet Biarritz, de probada sensibilidad musical, devuelve al Pájaro del cuento original su espiritualidad bíblica como “transmisor de luces” entre el cielo y la tierra, responsable de aportar al hombre consuelo y esperanza, al igual que Francisco de Asís. Martín Harriague, por su parte, artista asociado de mirada contundente, se inspira en el argumento de la Consagración ofrecido por Stravinsky en la revista Montjoie, para poner en escena la pulsión telúrica del ser vivo, tanto en la obra como en la partitura.



© Olivier Houeix OHX

# **CONTRACCIONES**
# CANDELA PEÑA, PILAR CASTRO

Abuztua **02 - 06** Agosto

**Victoria Eugenia**
**20:00**
**29 € / 24 € / 20 €**
castellano

*Contracciones* antzezlanak konpainia handiek beren langileen bizitzan duten sarbide gero eta handiagoan arakatzen du. Zehaztasun finez, emakume bat erakusten zaigu, goi-kargu bat, Emmari elkarrizketa egiten, salmenta saileko enplegatu bati, honen maite-bizitzari buruz. Hasieran, badu komikotik enpresak maite- edo sexu-harreman batez egiten duen definizio legezaleak. Hori, ordea, likiskeria bihurtzen da kudeatzaileak xehetasun intimoagoak eskatzen dizkionean Emmak lankide batekin, Danielekin, bizi duen abenturaz.

Alarma-kanpaiak jo eta jo hasten dira harremana gehiegi luzatzen denean. Emma haurdun geratzeak Danielengandik bortxaz bereiztea ekarriko du, eta emakumearen bizitzako alderdi guztiak ankerki manipulatzea. Emmaren bidez, erakusten da nola hasieran korporazioaren sarkinkeriari aurre egiten zaion, eta nola, pixkanaka, enplegatuek beren borondatez betetzen duten eskatzen zaiena, nola gero eta sarbide handiagoa ematen dieten enpresei beren gorputzez eta arimaz jabetu daitezen.

*Contracciones* explora la invasión creciente de las grandes compañías en la intimidad de sus empleados. Con hábil precisión, se muestra a una mujer en un cargo de poder que entrevista a Emma, de la sección de ventas, acerca de su vida amorosa. Al principio, hay algo cómico en la definición legalista de la empresa de lo que constituye una relación romántica o sexual. Esto, sin embargo, se convierte en lascivia mórbida cuando la gerente exige detalles íntimos de la aventura de Emma con un colega, Daniel.

Las campanas de alarma suenan cuando la relación se prolonga demasiado. El embarazo de Emma conduce a la separación forzada de Daniel y la manipulación despiadada de todos los aspectos de su existencia. A través de Emma se muestra cómo la actitud desafiante ante la injerencia corporativa da paso, gradualmente, al cumplimiento voluntario por parte de los empleados y cómo estos permiten cada vez más, que las empresas se adueñen de ellos en cuerpo y alma.



# CAMPEONES DE LA COMEDIA
YLLANA

Abuztua **03 - 06** Agosto

**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
**20:00**
**26 € / 20 €**
castellano

Gloria eta Josete independizatu egin dira berriki, eta Claudia dute tutore.

Lan bat aurkitu beharra dutenez soldata jaso eta bizi ahal izateko, Claudiak proposatzen die benetan gogoko duten zerbaitetan jarduten saiatzea. Artista izan nahi dute biek. Horretarako, ordezkari bat aurkitu behar lukete. Eta hara, Gloriak halako batekin hitz egin ohi du ligatzeko app batean… baina Claudiaren argazki bat erabiliz, hark jakin gabe.

Hasieran zalantzak badituere, Claudiak onartu egiten du harekin elkartzea eta fabore bat eskatzea, hau da, bere lagunen ordezkari izan dadila.

**José Manuel Blanco, Gloria Ramos, Claudia Fesser, Luis Mottola, Alberto Nieto** eta **Emilio Gavira** dira komedia honetako aktoreak, **David Ottoner**en zuzendaritzapean.

Gloria y Josete se acaban de independizar bajo la tutela de Claudia. Ante la necesidad de encontrar un trabajo para poder tener un sueldo con el que mantenerse, Claudia les propone que intenten dedicarse a algo que les guste de verdad. Ellos quieren ser artistas. Para ello deberían encontrar un representante. Y resulta que Gloria lleva tiempo hablando con uno a través de una app de ligues… aunque usando una foto de Claudia sin que está se enterase.

A pesar de sus reticencias iniciales, Claudia accede a encontrarse con él para pedirle, como favor, que represente a sus amigos.

**José Manuel Blanco, Gloria Ramos, Claudia Fesser, Luis Mottola, Alberto Nieto** y **Emilio Gavira** protagonizan esta comedia bajo la dirección de **David Ottone**.



# DOBLE O NADA
## MIGUEL ÁNGEL SOLA
## PAULA CANCIO

Abuztua **09 - 13** Agosto

**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
**20:00**
**26 € / 20 €**
castellano

Komunikabide garrantzitsu bateko zuzendariak bi zuzendariordeetako baten eskuetan utzi behar du bere postua. Bat gizona da, eta bestea emakumea. Zerk izango du eragina erabakian? Gaitasunak? Generoak? Eskarmentuak? Ausardiak? Engainuak? Tranpak?...

*Doble o nada* emozioak astintzen dituen antzezlan bat da, non ezer ez baita dirudiena, eta non traizioa eta maitasuna etengabe ari baitira jirabiran, boterea deritzon torloju-hari aizun horretan.

**Miguel Ángel Solák Aktore onenaren ACE 2017 Saria irabazi zuen antzezlan honengatik.**

El director de un importante medio de comunicación debe dejar su puesto en manos de uno de sus dos subdirectores. Uno de ellos es un hombre y la otra, una mujer. ¿Qué influirá en esa decisión?: ¿La capacidad?, ¿El género?, ¿La experiencia?, ¿La audacia?, ¿El engaño?, ¿La trampa?...

*Doble o nada* es una obra de impacto emocional en la que nada es lo que parece y en la que la traición y el amor son giros continuos de esa falsa rosca llamada poder.

**Ganadora del Premio ACE 2017 al Mejor actor (Miguel Ángel Solá).**



# TXINAKO ZIRKU AKROBATIKO HANDIA
# GRAN CIRCO ACROBÁTICO DE CHINA
## PLANETA VÉRTIGO

Abuztua **10 - 13** Agosto

**Victoria Eugenia**
10 - 11: **20:00**
12: **17:00 + 20:00**
13: **18:00**
**35 € / 30 € / 20 €**

Txinako Zirku Akrobatiko Handia delako talde ospetsuak sekulako gozabidea eskaintzen die bost zentzumenei. Ez du parerik mundu osoan. 30 artista baino gehiagok jarduten dute agertokian (tartean, dominadun olinpikoak eta Cirque du Soleil-eko akrobatak). Lau ekitaldiko ikuskizun honetan, protagonistarekin bidaiatzeko gonbita egiten die ikus-entzuleei. Protagonista, haur ameslari bat, fantasia-mundu batean sartzen dena.

El famoso y prestigioso Gran Circo Acrobático de China es un deleite para los cinco sentidos. Calificado como único en el mundo y con más de 30 artistas en escena (entre los que se encuentran medallistas olímpicos y acróbatas del Cirque du Soleil), en este espectáculo de cuatro actos invita al público a viajar junto al protagonista, un niño soñador que entra en un mundo de fantasía.



# EL CANDIDATO
## IKER GALARTZA
## ZUHAITZ GURRUTXAGA

Abuztua **14 - 16** Agosto

**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
**20:00**
**26 € / 20 €**
castellano

Lehendakari hautatu berria inbestidura-ekitaldirako hitzaldia prestatzen ari da; azken orduan, ordea, arazo larri bat sortuko zaio. Izan ere, ekitaldia eta hitzaldia eman beharrak aurpegian tik arraro, barregarri eta aguanta ezina eragin dio hautetsiari. Kendu ezina. Ekitaldi nagusia izorratzeko arriskua dago. Arazoa bideratzeko psikiatra bat ageriko da eta ondorioz, bien artean berriketaldi dibertigarri eta nahasgarri bat sortuko da. Zer du bakoitzak ezkutatzeko? Zein dira bakoitzaren benetako motibazioak? Atzera begiratuta, bizitzan zerk ekarri ditu dauden lekura? Eta batez ere, bata zein bestea, euren eginkizunetan bokaziodunak al dira?

A punto de dar su discurso de investidura, el presidente electo se encuentra con un inesperado problema: un grotesco tic nervioso amenaza con arruinar tan solemne momento. Un psiquiatra acude para atenderlo y se inicia una batalla dialéctica entre el político y el facultativo. ¿Qué esconde cada cual? ¿Cuáles son las verdaderas motivaciones de cada uno? Echando la vista atrás, ¿qué es lo que les ha traído al lugar donde están? Y, sobre todo, ¿son indistintamente vocacionales en sus funciones?



# UNA SEMANA NADA MÁS

## MARINA SAN JOSÉ
## MANU BAQUEIRO
## JAVIER PEREIRA

Abuztua **14 - 20** Agosto

**Victoria Eugenia**
**20:00**
**29 € / 24 € / 20 €**
castellano

Sofía eta Pablo elkarrekin bizi dira azken lau hilabeteotan, baina Pablok ezin du gehiago. Ezin du eraman bestearen ordena, haren liburuak, ezin du eraman haren ahotsa. Hala ere, horiek guztiak konpon litezke, Sofiarekin hizketaldia izan eta harremana hautsiz gero. Baina Sofía ero-ero maiteminduta dago Pabloz, izugarri maite du liburudenda batean duen lana, eta ezin du eraman Martin, Pabloren lagunik onena.

Hiru lagun jendetza dira, eta Sofíak beretzat nahi du Pablo oso-osorik.

Sofía, Pablo eta Martínek elkarrekin bizi beharko dute astebetez, astebetez bakarrik. Aste horretan, egoera zailduz joango da, aldatuz, eta azkenean ez dute jakingo nork engainatzen duen nor.

Sofía y Pablo viven juntos desde hace cuatro meses, pero Pablo ya no la aguanta. No aguanta su orden, no aguanta sus libros, no aguanta su timbre de voz, nada que no pudiese solucionar teniendo una conversación con Sofía y rompiendo la relación, pero Sofía está loca por Pablo, adora su trabajo en una librería y no aguanta a Martín, el mejor amigo de Pablo.

Tres son multitud y Sofía quiere a Pablo sólo para ella.

Sofía, Pablo y Martín tendrán que convivir una semana, una semana nada más. Una semana en la que la situación se irá complicando y girando hasta no saber quién engaña a quién.



# BAGINAREN BAKARRIZKETAK
## AINHOA ETXEBARRIA
## ITZIAR URRETABIZKAIA
## INTZA ALKAIN

Abuztua **17 - 20** Agosto

**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
**20:00**
**26€ / 20€**
euskara

*Baginaren bakarrizketak* adin, arraza, maila kultural eta sozial ezberdinetako 200 emakumeei egindako elkarrizketen emaitza da. Emakumeak, euren sexualitatearekiko sentitu eta sentitzen zituzten erru eta lotsa sentipenetatik libre azaldu ziren.

Behin eta berriro antzeztu den komedia honek, eztabaida piztu, moldeak apurtu, dinamikak sortu eta, lotsarik gabe, argi eta garbi azaltzen du emakumeen sexualitatea. Umorea, samurtasuna eta tarteka, izua adieraziz, hiru aktoreek emango diete ahotsa emakumeei, poesia, probokazioa eta barrearen bidez.

